


2005ean ezagutzera eman diren haurdunaldien borondatezko etenduren erdia baino gehiago 30 urtetik beherako neskei egin zaizkie

Euskadin areagotu egin da abortuen kopurua 15 eta 29 urte bitarteko nesken artean: 2005ean 1.419 operazio egin ziren, 2002an baino % 30 gehiago. 20 eta 24 urte bitarteko neskek dute abortuen tasarik altuena.

2005ean haurdunaldia eteteko 2.383 operazio egin zaizkie EAEko emakumeei. Izan ere, EAEko abortuen tasa 5,3koa da 15 eta 44 urte bitarteko 1.000 emakumeko. Haurdunaldiaren Berariazko Eteteen Erregistroan jaso diren datuen arabera, 2002an baino 579 ebakuntza gehiago egin dira 2005ean.

15 eta 29 urte bitarteko emakumeen artean ere borondatez eten diren haurdunaldien kopurua igo egin da, 2005ean duela hiru urte baino 334 operazio gehiago egin baitira. 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen abortuen tasa 7,7koa da, Euskadiko tasa osoa baino bi puntu altuagoa. 15 eta 29 urte bitarteko emakumeengan egindako abortuak borondatezko etendura guztien % 59,5 dira.



Iturria: Haurdunaldiaren Berariazko Eteteen Erregistroa. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila


Datuak adin-taldean arabera aztertzen badira, 2005ean 15 eta 19 urte bitarteko gazteei 244 abortu egin zitzaizkien; 20 eta 24 urte bitartekoei, 575; eta 600 25 urtetik 29ra dituztenei. Abortuen tasarik garaiena 20 eta 24 urte bitarteko nesken artean kokatzen da, tasa 9,1 abortukoa baita 1.000 emakumeko. Ondotik 15 eta 19 urte bitartekoak datoz, 7,3 aborturekin 1.000 emakumeko. Azkenik, 25 eta 29 urte bitartekoak daude, tasa 6,9koa baita.

Euskadiko gazteak 2004 txostenerako gazteek haurdun ez geratzeko metodoei buruz ingurukoekin hitz egiten duten ala ez galdetu zen. Neskek emandako erantzunetan arreta jarritz gero, % 96k lagunekin, % 60k gurasoekin eta % 58k irakasleekin hitz egiten dutela diote. Hortaz, baieztatu daiteke Euskadiko neska gazteek dauden ingurukoekin antisorgailuei buruz hitz egiten dutela.

Antisorgailuei buruz hitz egin duzu edo hitz egiten duzu ondokoekin: ...? Portzentajeak. EAE. 2004			
15 eta 29 urte bitarteko neska			
	zure gurasoekin?	zure lagunekin?	zure irakasleekin?
Bai	60	96	58
Ez	40	4	41
Ed/Ee	0	0	1
Guztira %	100	100	100

Iturria: Euskadiko gazteak 2004 txostena. Gazteen Euskal Behatokia

2005ean haurdunaldia eteteko operazioa egin duten 15 eta 29 urte bitarteko nesken % 79,1ek ez zuten operazioa baino lehen osasun zentroetara jo haurdun ez geratzeko metodoak erabiltzeko. Egoera berean zeuden 20 eta 24 urte bitartekoak % 62,4 eta 25 eta 29 urte bitartekoak % 55,5. Datu horiek aditzera ematen dute neska gazteen sexu harremanetan prebentzio falta dagoela, inguruko pertsonekin gai horietaz mintzatzen direla adierazi arren, goian ikusi dugun bezala.



Iturria: Haurdunaldiaren Berriazko Eteteen Erregistroa. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila

Beste ildo batetik, *Euskadiko gazteen joerak 2006* (1. aldia) ikerketan jakinarazten den bezala, 15 eta 29 urte bitarteko nesken ustez, osasun zerbitzuak oso baliagarriak dira nahi ez den haurdunaldi bat tratatu nahiz prebenitzeko garaian (% 51,8 eta % 49,1, hurrenez hurren).

Erlazionaturiko taulak:

1. taula (pdf, Kb)

Erlazionaturiko dokumentuak:

Euskadiko gazteak 2004 (pdf, Kb)

Euskadiko gazteen joerak 2006, 1. aldia (pdf, Kb)

Erlazionaturiko estekak:

Gazteen Euskal Behatokiaren estatistikak

Gazteen Euskal Behatokiaren ikerketa soziologikoak